HITZAURREA

Ohore nabaria da hain itzulpen bikainak bere baitan dakartzan liburu baten atarian hitz egiteko abagunea izatea eta, euskal itzulpengintzari hainbesteko ekarpena egin dioten testu erlijiosoekiko, eta Bibliaren itzulpenarekiko itzultzaileok bereziki daukagun zorra, neurri apalean bada ere, zertxobait kitatzeko aukera edukitzea.

Antologia honetan ageri diren itzultzaileak ikusirik, gehien bat erlijiomunduarekin eta erlijio-testuekin harreman estua duten pertsonez osaturik dagoela aitortu behar da, agian Peillen, Agirre eta Txillardegiren kasuak salbu; baina horietako batzuk testu erlijiosoez gainera, bestelako ugari ere euskaratutakoak dira. Hemen ageri diren itzultzaileak 50.eko eta 60.ko urteetan, erlijioa eta literaturazko itzulpenak nagusi ziren garaian lanean hasitakoak dira, oro har, baina 70.eko eta 80.ko urteetan saiakeragintzan, kazetaritzan, eta oro har, ikasliburugintzan eta kontsulta-liburugintzan buru-belarri ari izandakoak asko eta asko. Horietako batzuk autonomiaeraentzaren zeinupean hasi zen 80.ko urteetarako igarobidean zubigile garrantzitsu gertatu ziren. Gogoan izan bedi 1986tik 1991rako epean itzulpengintza % 22tik % 42ra hazi zela, etengabe ematen ziren telebistako filmak kontuan hartu gabe.

Horregatik, bada, antologia honetako testuen itzultzaileen izaera eta ibilbideak aukera ematen dit gurean testu erlijiosoek eta, bereziki, biblikoek izan duten toki nagusiaz eta eraginaz hitz egiteko, bai eta mundu sakratu eta profanoaren arteko itzulpengintza zubigilean ari izan den belaunaldia aipatzeko ere. Joannes Leizarragak *Iesus Christ gure iaunaren testamentu berria* 1571n argitaratu zuenetik etengabe ari izan dira euskal itzultzaileak testu erlijioso eta biblikoak euskaratzen, joera dinamiko eta formalezko bi poloen artean kokagune desberdinetan ezartzeko moduko lan itzuliak sortuz. Baina Leizarragaren lehen testu hartatik hasi eta Elizen Arteko Bibliara-

ino itzulpenen erkaketa bat egiten badugu, laster ohartuko gara, oro har, badagoela halako asimilatze-, ekandutze-joera bat (Belinskij errusiarrak Zukovskijren obraz ari zela erabilitako *usvoit´* aditzaren zentzu bertsuan) euskara eta euskal kulturaren tradiziora hurbiltzekoa. Joera hori nabarmen ageri da Eliza Katolikoaren azken hamarkadetako liturgia-testuetan.

Erlijio handietako testuak, Korana, testu budikoak adibidez, Biblia bera bezalaxe aski goiz itzuli izan ziren hizkuntza askotara, eta ondoren itzulpen horiek hizkuntza horietako bakoitzaren bizitza eta garapenean txertatu eta garrantzi erabakigarria izan dute herrialde askoren bilakabidean. Hala gertatu zen paliz, sanskrito nahasiz eta sanskrito hutsez idatzita zegoen budismoaren literatura kanonikoarekin K.o.go I. mendean Txinan sartzean. Lehen saio hartan, hitz tekniko asko itzuli bazituzten ere, beste asko transkribatu egin zituzten, txinerak bereganatu gabe; arazo sintaktikoak ere ugari izan ziren eta oso libreki eginak zeuden lehen itzulpen haiek ia parafrasi hutsak ziren, eta hizkera bitxian emanak zeudenez ia ulertezin gertatzen zitzaien budismoan adituak ez ziren txinatarrei. Aldiz, tibeterazko itzulpenak egitean, zehaztasun handiz aritu ziren, hainbesteraino, non tibeterazko testuak oinarritzat harturik jatorrizkoen berridazketa burutu baitzitekeen.

Koranari dagokionez, Ummayad eta Abbasid kalifatoen garaietan, Espainian batik bat, Korana beste hizkuntza batzuetara itzultzeko lanetan hasi ziren eta latinezko lehen itzulpen osoa XII. menderako buruturik zegoen; Koranaren ondorengo itzulpen gehienak, arabiera behar adina ez zekitenek eginak, oro har, aski aldrebesak gertatu ziren. Ordea, gauzak nabarmen aldatu ziren 1889an Ahmadia Nazioarteko Komunitatea sortzean Islama mundu osoan zabaltzeko asmoarekin. Bibliari dagokionez Martin Luterok hamabi urtetan egindako lan eskergaren eta haren eraginaren parekorik ez dugu euskaldunok izan zoritxarrez, eta Leizarragaren lan bikaina erraldoi bakarti baten antzera ageri zaigu burgesiaren euskara izan omen zitekeen haren amets eragotzi gisa.

Munduko beste herrialde askotan bezala gurean ere itzulpen ugari egin zen aurreko mendeetan, eta noizean behin ohar edo gogoetaren bat edo beste burutu ere bai itzulpen horien izaeraz, baita tarteka aurreko itzulpenen kritikak ere. Hala ere, gurean ez zegoen itzulpenaren inguruko gogoeta sistematiko luzerik, Ingalaterran (Chapman, Denham, Cowley, Campbell, Tytler), Frantzian (Dolet, Peletier, du Bellay, D'Ablancourt) edo Alemanian (Schleiermacher) bezala, nahiz eta Larramendi, Kardaberaz, Mogel eta beste zenbaitek itzulpengintzari buruzko beren ikuspegia behin baino gehiagotan adierazi.

Baina nire asmoa ez da itzulpengintza luze eta emankor horren azterketa egitea, baizik eta 70.eko eta 80.ko urteetan itzulpen-tradizio erlijioso

horretatik profano eta akademikorako urratsa nola egin zen gaingiroki adieraztea. Horregatik 1977ko irailean Arantzazun 30 bat lagun bildu eta Hans Peter Rüger alemaniar irakaslea eta Ignacio Mendoza madrildarraren gidaritzapean egin zen itzulpen-mintegia da nire ustez Euskal Herrian kontzeptu traduktologiko modernoak lehen aldiz sistematikoki jaso zituena, beti ere Bibliaren itzulpengintzak planteatzen dituen arazoei zegokienez. Mintegi horrek Jan de Ward frantsesaren eta Carlo Buzzeti italiarraren eskutik izango zuen jarraipena zenbait urte geroago.

Lehen saio hartan landu ziren kontzeptuak atzerrian Bibliaren itzulpengintzan sapan zegoen baliokidetasun dinamiko funtzionalaren, bereziki Eugen Nidak aurkeztuaren joerakoak ziren.

Neure esperientzia pertsonalaren aipamena egitea zilegi bazait, zinez aitortu beharra daukat mintegi horretan esku hartu izana erabakigarri gertatu zitzaidala 1980.ean Euskaltzaindiaren eskariz Itzultzaile Eskola sortzeko, izan ere bertan jasotako irakatsiak eta Euskaltzaindiaren liburutegian aurkituriko *Voprosy Jazykoznanja* aldizkariak itzulpengintzaz zekarren eta garai hartan gai hartaz irakurri nuen artikulu bat Nidarena baitzen, norbaitek errusierara itzulia. Artikulu hura eta bertako aipamen bibliografikoak izan ziren Donostian abian jarri genuen itzultzaile-eskolaren abiapuntu teorikoetako batzuk.

Hala ere, ez litzateke inondik bidezkoa testu erlijioso eta bibliko guztiak irizpide traduktologiko bertsuekin itzuliak direla uste izatea. Adibidez, Olabideren *Idazteuna,* bere garbizaletasun guztiarekin, joera dinamikotik baino formaletik hurbilago dago, argitaratu zen garaiko beste bertsio batzuekin erkatuz gero, eta Lizarraga eta Duvoisinen testuen artean ere badago alderik. Antologia honetan ageri diren itzultzaile gehienek, 70.eko urteetan eta lehenagotik ere bai, itzulpen ugari egin behar izan zituzten ikastolan gero eta handiagoak ziren premiei erantzuteko eta pixkanaka hedatzen ari zen kazetaritzako albisteak emateko ere. Horregatik, horien itzultzeko eran, nabaria zen testu erlijiosoetan, eta bereziki liturgikoetan, behin eta berriz egosi eta umoturiko esamoldeen erabilera, sarritan euskararen jatortasunaren mesedetan zenbait ñabardura linguistiko-estilistiko sakrifikatzen zuena. Ikasliburuetako eta administrazioko testugintza aurrera joan ahala gero eta nabariagoa zen terminologiak pixkanaka bere lekua betetzen hasi behar zuelakoa eta itzulpen literarioa bera ere eskakizun zorrotzagoei atxikirik egin behar zelakoa, hau da, jatorrizkoaren kultura eta giroa aintzatago hartuz.

Testuen tipologia zabaldu eta bariatu ahala baliabide guztiak eroso jasotzeko moduko teorizazio baten premia indartuz joan zen, baina itzultzaile «erlijioso»en eskarmentutik iraganeko testu eta esamolde desberdinen eza-

gutza, xede-hizkuntzako hartzailearen hizkuntza-erosotasuna eta tradizioak berretsiriko gramatika- eta lexiko-bideetatik ibiltzeak ematen duen etxekotasun-giroa eta oihartzun-ahaltasunak zeinen beharrezko eta gomendagarriak diren ahaztu gabe. Jakina, sorburu-hizkuntzan bertan testu hotz eta zorrotza dena nekez edo inola ere ezin eman testu mota batzuetan dastatzen zen «aho-gozo» samurrarekin. Baina nork eskatzen dio eztitasunik dekretuari edo notarioaren ziurtapenari?

Beraz, Martuteneko Itzultzaile Eskola deituan sarri erabili ziren testu erlijioso eta biblikoak, bai aurreko mendeetakoak eta bai egungoagoak, eta horien erkaketatik irakatsi bikainik atera ere egin zuen ikasleak, eztabaida emankorrak pizten zirelarik aukera posibleen artean zeuden aldeak haztatuz. Orduan erabilitako materialaren lekuko dira J. Zabaletaren *Euskal Itzulpenaren Antologia I*eko (1984) hainbat testu erlijiosoren itzulpenak.

Hasierako teorizazio haietan ahalik eta argien uzten saiatzen ginen joera dinamiko funtzionalaren edota formalaren barruan itzultzeak zituen aldeak, baina aldi berean, eta parez pare, gero eta gardenago ikusi ahal izan zuen ikasleak ez dagoela modu edo joera bakar baten arabera testua itzultzerik, baizik eta testu berean esaldi eta lerro bakoitzak bere aukera eskatzen duela osotasun bat eratzen duen mikrokosmos horretan. Monotonia ez baizik polifonia dela testua eta musika xarmangarri hori sortzeko sorburu-testua ez ezik, xede-testuaren hartzailearen ahalbideak ere ahalik eta ongien ezagutu behar direla.

Bestalde, testu erlijioso eta biblikoen itzultzaileak, espreski eta sen hutsez askotan, oreka bikaina lortzen zuen idatzizkoa eta ahozkoaren artean, hasberriaren itzulpenetan sarritan oso ongi errespetatzen ez den balioa den hori. *Itzulpen Antologia II*ren sarreran Joan Mari Lekuonak erabilitako «transizioko itzulpengintza» izendapena aintzat harturik, oraingo honetan datozenek «profesionalizazioko itzulpengintza» eratzen dutela esan behar nolabait. Bai liturgia-itzulpenekin, testu bibliko eta bestelakoenekin, eta egoera politiko berriaren ondotik sortutako eskariaren premiak asetzeko itzultzaileak prestatzen egin behar izan ziren ahaleginekin euskararen mundua aro berri batean sartu zen nola kantitatez hala kalitatez, baita hausnarketa mailaz. Eta gaur antologia honetan ageri diren itzultzaile gehienek bete-betean esku hartu dute azken hiru hamarkadetako itzulpengintza erabakigarri horretan. Belaunaldi honek egin duen lanaren aurrean, inolako zalantzarik gabe esatera ausartzen naiz, tradiziozko eta euskalkizko euskararen eta euskara batu modernoaren arteko zubia hedatu eta neurri handi batean euskal prosa berrituaren oinarriak ezarri dituela, eta gaur egun euskara batuko prosak ageri dituen bertuteetako asko belaunaldi horren lanari, sena eta teorizazioa uztartzen ahalegindu eta lortu zituenari zor zaizkiola.

Horregatik *Senez* aldizkaria, Martuteneko Itzultzaile Eskolan sortu eta artean bertan kudeatzen zena, 1988an 1-2 zenbakiak testu sakratuen itzulpenari eskaintzean, jadanik ongi jabeturik zegoen gai honen garrantziaz eta bertan artikulu sail garrantzitsua ageri da Bibliak Mendebalean izan duen itzulpen-tradizioaz, Korana eta Ekialdeko testu sakratuen transmisioaz, Bibliaren itzulpenak Euskal Herrian izandako tradizioaz, Liturgiako Itzulpen Batzordearen Itun Berriaz eta ordurako lanean ari zen Elizen arteko Bibliaz; eta euskarazko biblia-itzulpenen eta, oro har, Bibliaren itzulpenari buruzko bibliografia orokorra ere badakar.

Azkenik, bukatze aldera eta lerro gutxitan bada ere *Itzulpen Antologia III* honetarako beren testuak egin dituzten itzultzaileen bertuteei dagokienez, esan behar dut, oro har, joan den mendeko testu erlijiosoen, eta bereziki biblikoen itzulpengintzan ari izan diren gehienek bezala euskara sakonki dakitela, eta altxor horretan etengabe euskara batzeak egiten zituen ekarpenak txertatzen erne ibili direla, presarik baina pausarik gabe. Bestalde, testuaren hartzaileekiko komunikazio-hariari etengabe eusten apartak izan dira gehienak, horretarako aurrekoen aurkikuntza eta baliabideak metatuz eta aberastuz.

Eta lehen esan badut ere, berriro aipa dezadan, testu idatziak kasu askotan ahozkotasun edo erdi-ahozkotasunarekiko izan behar duen konplizitate hori ezin hobeki zaindu eta lortu dute gehienek, euskalkietan erroa duen euskara batu zaporeduna erabiliz. Gainera, itzultzaile horietako asko taldean ari izan dira lanean, eta horretan ere gaur egun itzulpen-enpresa askotan nagusi den jarduera emankor eta diziplinatuaren aitzindari izan dira. Zalantzarik ez dago talde-lan hori esperientzia baliotsua bezain preziagaitza izan dela euskara batu eta estandaritzatzeko.

Azken aldi honetan behin baino gehiagotan esan izan da "Literatura Unibertsala" eta "Pentsamenduaren Klasikoak" saileko itzulpenak ezinbesteko erreferentzia dituela aurreko eta oraingo mendeko euskal prosak; nik uste, huts egiteko arrisku handirik gabe aitor daitekeela, testu erlijiosoen eta bereziki biblikoen itzulpengintza, eskubide berez eta lehenagotik gainera, erreferentzialtasun horren beraren jabe izan dela eta hala izaten jarraituko duela etorkizunean ere, nahiz eta sail horren eragina gizartean, oro har, murriztuz joan den, eta agian gerokoan ere joango den, beste testu mota batzuen mesedetan.

Xabier Mendiguren Bereziartu